



5/2017 akta

2017ko uztailaren 10ean, 10:30ean, Gasteizen elkartu zen **Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordea**. Alboan agertzen diren kideak bertaratu ziren, aurretik deialdia egin baitzen, eta gai-zerrenda hau jorratu zuten:

1. Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea.
2. Egiteko dauden ebazpenen eta erreklamazio berrien esleipenaren egoera.
3. Batzordeko kideen konpentsazio ekonomikoa.
4. Galde-eskeak

BATZORDEBURUA:

Javier Bikandi Irazabal jauna

KIDEAK:

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea

Ana Arkotxa Azkue andrea

IDAZKARIA:

Ana Arkotxa Azkue andrea

1.- Aurreko bileraren akta irakurtzea eta onartzea

Batzordearen 2017ko ekainaren 26ko bileraren akta irakurri da, eta aho batez onartu. Ondoren, parte-hartzaileek sinatu egin dute.

2.- Egiteko dauden ebazpenen eta erreklamazio berrien esleipenaren egoera

Erreklamazioen izapidetze-egoera aztertu dute bertaratu direnek, abuztua baino lehen ebazteko aukera dagoen aztertzeko xedez. Era berean, jaso diren erreklamazio berrien berri eman da, eta horiek ebaztea eta esleitzea erabaki da.

3.- Batzordeko kideen konpentsazio ekonomikoa

Kontu honen egungo egoera azaldu du batzordeburuak, eta batzordeburu izendatu zutenetik (2016ko urritik) konpentsazio hori ezarri ez denez, eskudun organoari berori izapidetzea eskatzea hitzartu da, eta eskaera formala egitea. Horretarako, Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen irailaren 13ko 128/2016 Dekretuaren 2.2. artikulua ezartzen dituen irizpideak errespetatuko dituen proposamena egingo dute kideek; hau da, jarduera egiteko erabilitako denboraren eta arduraldiaren arabekoak izango dira lanak onartzeagatik konpentsazioaren modua eta baldintzak, baita ezagutzen dituzten kontuen kopuruaren arabekoak ere.



4.- Galde-eskeak

- # Uriarte kideak hala eskatuta, kontu hauek jorratu dituzte:
- Ordezkarien erregistroaren bidez izapidetzea pertsona juridikoen ordezkariak elektronikoa.
 - Kexagileak identifikatzea. Nortasuna identifikatzeko elkarreragingarritasun-zerbitzuari alta ematea erabaki da.
 - Administrazio publikoekiko harremanak. Arau orokor gisara, plataforma elektronikoaren bidez egingo dira horiek, dagokion administrazioak bitartekorik ez duenean salbu.

Jorratzeko gai gehiagorik ez zegoenez, beste bilera batera deitu ditu batzordeburuak. 2017ko uztailaren 18an izango da, 09:00etan, eta ebatzi gabe dauden erreklamazioak ebazteko xedea izango du. 11:30ean amaitu da saioa.

Idazkaria
Ana Arkotxa

Batzordeburua
Javier Bikandi

Kidea
Koldobike Uriarte